

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK**

3

**DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

*6/2015 FORU DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Kirol Etxeko aretoak erabiltzeko eta bertako instalazioetako zerbitzuak jasotzeko prezio publikoak ezartzen dituena.*

1995eko martxoaren 21eko 30/1995 Foru Dekretuaren bidez, Anoetako estadioko behealdean dagoen Kirol Etxeko aretoen erabilpenagatik eta zerbitzuen emakidagatik ordaindu behar diren prezio publikoak ezarri ziren eta, halaber, foru xedapenak prezio publikoen zenbatekoa ezarri zuen.

Ondoren, aretoak erabiltzearen eta Kirol Etxeen zerbitzuak jasotzearen prezioak aldatu egin ziren honako dekretuen bidez: 1996ko apirilaren 16ko 38/1996 Foru Dekretua; 1997ko martxoaren 11ko 24/1997 Foru Dekretua; 2001eko apirilaren 10eko 33/2001 Foru Dekretua; eta, azkenik, 2005eko uztailaren 26ko 49/2005 Foru Dekretua.

Une honetan, Kirol Etxeko aretoak eta zerbitzuak zuzenean kudeatuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak. Hori dela eta, egoera berria ikusirik, ezinbestekoa da beste foru dekretu bat onartzea, hartara administrazioari eta kobratzeari eragiten dieten hainbat alderdi arautzeko.

1990eko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak, Tasa eta Prezio Publikoenak, III. tituluaren prezio horien erregimen juridiko orokorra arautzen du. Foru xedapen horretako 25.2 artikulua dioenez, gizarte, ongintza, kultura edo onura publikoko arazoengatik hala komeni denean, jarduerak egiteak edo zerbitzuak eskaintzeak sortutako kostu ekonomikoak estaltzeko ordaindu beharko lirakeenak baino prezio baxuagoak ezar daitezke, subentzionatutako prezio zatia estaltzeko aurrekontuko aurreikuspenak onartu ondoren, betiere.

Hori gertatzen da foru dekretu honek ezartzen dituen prezio publikoekin. Gizarte arazoak eta interes publikoak daude, hartara zuzitzeko partaideei eskatzen zaien prezioaren zenbatekoa jardueren kostuak estaltzeko baino baxuagoa izan dadin. Gipuzkoako kirol federazioak dira Kirol Etxeen erabiltzaile nagusiak, irabazi asmorik gabeko erakundeak, beraz, zeinen gainean Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak tutoretza eta sostengu ekonomikoaren legezko betekizuna baitu. Hori dela eta, fotokopiak eta fax zerbitzuak emateko eskatzen diren prezio publikoek ez dute estaltzen prestazio horien kostuak, eta gainerakoa departamentu horren aurrekontuek estaltzen dute.

Horiek horrela, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak egindako proposamenez eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT

*1. artikulua. Xedea.*

Kirol Etxeko instalazioetako aretoen erabilpenagatik eta zerbitzuen emakidagatik ordaindu behar diren prezio publikoak arautzen dituen araudi erregulatzaila onesten da.

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

*DECRETO FORAL 6/2015, de 10 de marzo, de precios públicos que se exigen con motivo de la utilización de las salas y la prestación de servicios en las instalaciones de Kirol Etxea.*

Por Decreto Foral 30/1995, de 21 de marzo, se establecieron los precios públicos cuya exacción se deriva de la utilización de las diversas salas y la prestación de diferentes servicios en las instalaciones de Kirol Etxea, sita en los bajos del estadio de Anoeta, fijando, igualmente, la disposición foral la cuantía de los mismos.

Posteriormente, los precios públicos por la utilización de salas y la prestación de servicios en Kirol Etxea fueron modificados por Decreto Foral 38/1996, de 16 de abril, por Decreto Foral 24/1997, de 11 de marzo, por Decreto Foral 33/2001, de 10 de abril y, por fin, por Decreto Foral 49/2005, de 26 de julio.

En estos momentos, las salas y los servicios de Kirol Etxea van a ser gestionados directamente por el Servicio de Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Por ello, a la vista de esta nueva situación, resulta preciso aprobar un nuevo decreto foral que regule los diversos aspectos que afectan a su administración y cobro.

La Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de tasas y precios públicos, regula, en su Título III, el régimen jurídico general de dichos precios. El artículo 25.2 de la citada disposición foral establece que, cuando existan razones sociales, benéficas, culturales o de interés público que así lo aconsejen, podrán señalarse precios públicos que sean inferiores a los que resultarían de la cobertura de los costes económicos originados por la realización de las actividades o la prestación de los servicios que motivan su exacción, previa adopción de las previsiones presupuestarias oportunas para la cobertura de la parte del precio subvencionado.

Esto es lo que ocurre con los precios públicos que se fijan por el presente decreto foral. Existen razones sociales y de interés público que justifican que el importe del precio exigido a las personas participantes sea inferior al que habría de aplicarse para cubrir los costes de las actividades: las principales usuarias de Kirol Etxea son las federaciones deportivas guipuzcoanas, entidades sin fin de lucro respecto de las que el Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene una obligación legal de tutela y sostenimiento económico. Por ello, la cuantía de los precios públicos exigibles por la prestación de los servicios de fotocopias y fax no cubren el coste de estas prestaciones, cobertura que es completada desde los Presupuestos del citado departamento.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el día de la fecha,

DISPONGO

*Artículo 1. Objeto.*

Se aprueba la normativa reguladora de los precios públicos que se exaccionen con motivo de la utilización de las salas y la prestación de servicios en las instalaciones de Kirol Etxea.

**2. artikulua. Ordaintzera behartuak.**

Foru dekretu honetan erregulatutako prezio publikoak ordaintzera behartuta egongo dira aipatutako aretoak erabiltzen dituztenak eta emandako zerbitzuen onuradunak.

**3. artikulua. Salbuespenak.**

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, foru dekretu honek erregulatzen dituen prezio publikoak ordaintzetik salbuetsita dago.

2. Horrez gain, aretoen erabilpenagatik prezio publikoak ordaintzetik salbuetsita egongo dira kasu hauetan:

– Aretoen erabilpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek bilerak, ikastaroak edo bestelakoak antolatzeke bada.

– Aretoen erabilpena, Gipuzkoan egoitza duten Gipuzkoako kirol federazio eta klubetako organoek batzar edo bestelako ohiko bilerak eta euskal kirol federazioek ohiko batzar orokorra egiteko bada.

– Aretoen erabilpena, aurreko paragrafoan aipatutako Gipuzkoako kirol entitateek titulu ofizial bat lortzeko antolatzen dituzten berezko prestakuntza jardueretarako edo kuota edo inskripzio eskubiderik kobratzen ez direnetarako erabiltzen direnean.

Nolanahi ere, Kirol Etxeko areto edo beste guneen erabilpena ohiko ordutegitik kanpo egiten bada, entitate erabiltzaileak ordu edo frakzio bakoitzeko 36,37 euro ordaindu beharko ditu.

**4. artikulua. Sortzapena.**

Foru dekretu honetan erregulatutako prezio publikoak, ordainarazpena eragiten duten aretoen erabilpenerako edo zerbitzuen emakidarako eskaera egiten den unean bertan sortuko dira.

**5. artikulua. Zenbatekoa.**

a) Aretoen erabilpena:

Zenbatekoa erabili nahi den aretoaren eta denboraren arabera finkatuko da:

**Artículo 2. Obligados al pago.**

Están obligados al pago de los precios públicos regulados en este decreto foral los que utilicen las citadas salas y los que sean beneficiarios de los servicios prestados.

**Artículo 3. Exenciones.**

1. El Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa estará exento del pago de los precios públicos regulados en este decreto foral.

2. Además, estarán exentos del pago de los precios públicos por el uso de salas los siguientes usos:

– El uso de las salas para celebrar reuniones, cursos u otras actividades de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

– El uso de las salas motivado por la celebración de asambleas u otras reuniones ordinarias de los órganos de las federaciones y clubes deportivos guipuzcoanos y por las asambleas generales ordinarias de las federaciones deportivas vascas cuya sede radique en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

– El uso de las salas para la celebración de actividades formativas propias de las entidades deportivas guipuzcoanas señaladas en el párrafo anterior, cuyo fin sea la obtención de una titulación oficial deportiva reglada o por las que no se cobre cuota de asistencia o derechos de inscripción algunos.

En todo caso, la utilización de las salas u otros espacios fuera del horario de apertura ordinario de Kirol Etxea, implicará el abono por parte de la entidad usuaria de 36,37 euros por cada hora o fracción.

**Artículo 4. Devengo.**

Los precios públicos regulados en el presente decreto foral se devengarán en el momento de la solicitud de la utilización de las salas o de la prestación de los servicios que motivan su exacción.

**Artículo 5. Cuantía.**

a) Utilización de salas:

Las cuantías vendrán determinadas por el tipo de sala que se vaya a utilizar y duración de la utilización del modo siguiente:

Aretoa Sala	Edukiera Capacidad	Egun ½ edo zatiko prezioa Precio ½ día o fracción	Egun osoko prezioa Precio día entero
Atano III	90-100	109,09	181,81
Paulino Uzkudun	90-100	109,09	181,81
Atano III + Paulino Uzkudun	180-200	218,16	363,62
Benito Diaz	15-20	65,45	109,09
Juan Muguerza	15-20	65,45	109,09
Aita Manuel	30-35	87,26	145,44

Prezio publiko horiek ondorengo hobariak izango dituzte:

– %50, foru dekretu honen 3. artikulua 2. apartatuan aurreikusi ez diren jarduerak egiteko erabiltzen direnean Gipuzkoan egoitza duten Gipuzkoako kirol federazio eta klubek nahiz euskal kirol federazioek antolatutakoak.

Areto horiek Kirol Etxearen ohiko ordutegitik kanpo erabiltzen badira, prezio horiez gain erabilitako ordu edo frakzio bakoitzeko 36,37 euro ordaindu beharko ditu erabiltzaileak.

b) Zerbitzuen erabilpena:

– Fotokopiagailua:

Estos precios públicos contarán con las siguientes bonificaciones:

– 50% cuando el uso se refiera a la celebración de actividades no previstas en el apartado 2 del artículo 3 del presente decreto foral organizadas por las federaciones y clubes deportivos guipuzcoanos y federaciones vascas cuya sede radique en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En caso de utilización de estas salas fuera del horario de apertura ordinario de Kirol Etxea, el usuario deberá abonar, además de estos precios, 36,37 euros por cada hora o fracción.

b) Utilización de los servicios:

– Fotocopiadora:

\* DIN-A4 formatoa: 0,05 euro/unitatea.

\* DIN-A3 formatoa: 0,08 euro/unitatea.

— Faxa:

\* Lehenengo orria: 0,10 euro.

\* Bigarrenkoa eta hurrengoak: 0,05 euro.

c) Kiroleko Zuzendaritza Nagusiak antolatutako prestakuntza jarduerak (Kirolarte):

— A motako ikastaroak, kanpoko irakasleek emandakoak eta kirol-eragile profesionalen zuzendutakoak: 29,10 euro, par-  
taide eta eguneko.

— B motako ikastaroak, bertako irakasleek emandakoak eta kirol-eragile ez profesionalen zuzendutakoak: 14,55 euro, par-  
taide eta eguneko.

Aurreko ataletan dauden kuantifikazio irizpideak aplikatu ondoren ateratako prezio publikoen gainean dagokion BEZA aplikatuko da.

#### 6. artikulua. Administrazioa eta kobrantza.

Prezio publikoen administrazioa eta kobrantza, borondatezko epean, kirol gaietan eskumena duen departamentuak egingo du, eta, bide exekutibotik Ogasuna eta Finantza Departamentuak egingo du.

#### 7. artikulua. Ordaintzeko moduak.

a) Aretoen erabilpenak sortutako prezio publikoen kasuan, zenbatekoaren %100 erreserba egiterakoan ordainduko da.

b) Zerbitzuak emateagatik sortutako prezio publikoen kasuan, zenbateko osoa zerbitzuak eman ondoren ordainduko da.

c) Kirolarteko prestakuntza ikastaroen kasuan, prezioa ordainduko da izena ematean.

#### 8. artikulua. Itzulketa.

Ordaindutako prezio publikoak kasu hauetan itzuli beharko dira:

a) Erreserbatutako aretoa azkenean erabiltzen ez denean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari gutxienez bost egun lehenago jakinarazten bazaio.

b) Izena emana dagoen ikastaro batera joaten ez denean, behar bezala egiaztatuko arrazoia baldin bada, eta beti ere ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago jakinarazten bada.

#### 9. artikulua. Interpretazioa.

Foru dekretu hau interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak erabakiko ditu.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen da 2005eko uztailaren 26ko 49/05 Foru Dekretua, Kirol Etxeko aretoak erabiltzeko eta bertako instalazioetako zerbitzuak jasotzeko prezio publikoak ezartzen dituen.

### AMAIERAKO XEDAPENAK

**Lehenengoa.** Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari, foru dekretu hau garatu eta exekutatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu eta xedapenak emateko behar den ahalmena ematen zaio.

**Bigarrena.** Foru Dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

\* Formato DIN-A4: 0,05 euros/unidad.

\* Formato DIN-A3: 0,08 euros/unidad.

— Fax:

\* Primera hoja: 0,10 euros.

\* Segunda y siguientes: 0,05 euros.

c) Actividades de formación organizadas por la Dirección General de Deporte (Kirolarte):

— Cursos de clase A, que son los impartidos por profesorado externo y destinados a agentes deportivos profesionales: 29,10 euros/participante y día.

— Cursos de clase B, que son los impartidos por profesorado propio y destinados a agentes deportivos no profesionales: 14,55 euros/participante y día.

Sobre los precios públicos resultantes de la aplicación de los criterios de cuantificación de los apartados anteriores, se aplicará el tipo correspondiente de I.V.A.

#### Artículo 6. Administración y cobro.

La administración y cobro de los precios públicos en periodo voluntario, corresponderá al departamento foral competente en materia de deporte y al Departamento de Hacienda y Finanzas en vía ejecutiva.

#### Artículo 7. Forma de pago.

a) En el caso de los precios públicos devengados por la utilización de las salas, el 100% de su importe será abonado a la formalización de la reserva.

b) En el caso de los precios públicos devengados por la prestación de servicios, el abono del total de su importe se efectuará una vez prestados los mismos.

c) En el caso de los cursos de formación de Kirolarte, el abono del precio se efectuará en el momento de la inscripción.

#### Artículo 8. Devolución.

Procederá la devolución del precio público abonado en los siguientes casos:

a) Cuando la sala reservada no vaya finalmente a ser utilizada y así se comunique al Servicio de Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa con una antelación mínima de cinco días.

b) Cuando no se asista, por causa debidamente justificada, a un curso para el que se haya formalizado inscripción y se comunique esta circunstancia con una antelación mínima de tres días al comienzo del curso.

#### Artículo 9. Interpretación.

Las dudas que puedan surgir de la interpretación del presente decreto foral serán resueltas por el Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto Foral 49/2005, de 26 de julio, de precios públicos que se exigen con motivo de la utilización de las salas y la prestación de servicios en las instalaciones de Kirol Etxea.

### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.** Se faculta a la diputada foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte para dictar las disposiciones y adoptar cuantas medidas sean necesarias para el desarrollo y ejecución del presente decreto foral.

**Segunda.** El presente decreto foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia, 2015eko martxoaren 10a.

DIPUTATU NAGUSIA,  
Martin Garitano Larrañaga.

KULTURA, GAZTERIA  
ETA KIROL DEPARTAMENTUKO  
FORU DIPUTATUA,  
Ikerne Badiola Garciandia. (2595)

San Sebastián, a 10 de marzo de 2015.

EL DIPUTADO GENERAL,  
Martin Garitano Larrañaga.

LA DIPUTADA FORAL  
DEL DEPARTAMENTO DE  
CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTE  
Ikerne Badiola Garciandia. (2595)